

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN

«Mattin» berisolariaren omenaldia Donostian

Joan berri den Igandean, Ur-tarilaren amasegaren, Donostia-ko «Astoria» Teatrotan Frantziako «Mattin» berisolariaren omenaldia egin zen. «Mattin» erri bertako «Centro de Atracción y Turismo» delakoak omenaldi eder bat eskeindu zion.

Teatroa murraraino bete zegoen bertsozaleek Ahetzeko seme zorrotz eta alari bere txalo eta agurrak eman beharrez.

Omenaldi hontan Euskal Herriko bertsolari famatu guztiak bildu ziran denek «Mattin» erri bere bertsoak botatzeko prest.

Han egon ziren: Uztapide, Lizaso, Agirre, Lazkao, Lazkao Txiki, Garmendia, Mitxelena eta Gorrotxategi Gipuzkoaren partetik. Xalbador, Arozamena eta Lasarte, Nafarro osoren aldetik, eta Lopategi eta Azpillaga Bizkai aldetik.

Festaldiak esito handia izan zuten, eta dena ongi atera ere.

Gal emalea «Lolola» Irratiko gizon trebe den Jose Maria Iriondo izan zan.

Ondorean Donostiako «Urbia» Jatorriaren ohorezko Bazkaria ospatu zan.

Zorionak «Mattin» biotzez.

«Euskal Hit Parade», ren berriak

«Euskal Hit Parade» delakoa honako moduan azkenean gertatu da:

Lehenbizikoa: «Gaur erdian solua», «Unai» Iruko kantatu duena.

Bigarrena: «Txori Txikiak», «Oskari» taldeak abestu.

Hirugarrena: «Gure bide guztiak», Benito Lertxundi kantatu.

Laugarrena: «Hura», Antxon Valverdearena.

Bostgarrena: «Soro batean lo-rea», «Erlak» taldeak kantatu.

Selgarrena: «Zu euskaldun be-

ria», «Araba» Irukoak kantatu.

Zazpigarrena: «Iturri goi-rotza», Mikel Laboarena.

Zortzigarrena: «Nere Herria», Lourdes Iriondoarena.

Bederatzigarrena: «Zure be-giek», Mikel Laboarena.

Amargarrena: «Nun dan neka-zaria», Xabier Madinarena.

Denak, batez ere aurrean gel- ditu zirenak elkarri puntu gutxi- etako tarteak izanik, igauiteu zeuden, azkenik «Gau Erdian Solua», «Unai» Irukoak kantatzen duena, txapeluna geratu da.

Euskarazko liburuak

1971 garren urtean argitaratu diren euskarazko liburuak, Eiba-

reko Yon San Martin jaunak dionez, 49 izan dira. Batez ere bat Abenduaren erditik azkene- rano argitaratua izan ba da azkenean euskal liburuak asteen bat gutxi gorabera argitaratu di- ra.

Euskerazko liburu apargarrie- netan nere iritziz hauek dira: Hitz berdeak Joxe Azumendi' rena, Langileria historiar zehar, Mikel Ugaldere, Euskal Lite- raturaren Historia, Ibon Sarasola' rena, Euskal Herriaren His- toria (lehen tomoa oraino ez bakarrik argitaratua da, beste bi argitaratzekoan daude, Eder- rera ere argitaratzen da), Fede- riko Zabala' rena.

Euskarazko liburuak irakurleak ugaritzen doazela beharretan daude. Gero ta irakurle gehiago izaten bada ere oraindik euske- razko liburuak salmenta haun- diagoa izan behar dute. Salgai dira gure liburu-dendetan.

Aurretzakoa liburuetan badira

IKUSLE

GURE AMA LURRA

LEITZA BERRIA TA PATXIARRAZOLA



LEITZAKO IKASTOLA

Gaur Leitzako erriak, 2.325 biz- tania ditu. Lenagoko aberastasu- nei berriak erantsi dizkiete. Azke- neko amar urte aurretan era bat aldatu zaigu. Industria giroan sar- tu da zerao. Ba ditu, olategi onenak, bigarren mailako ikastetxeak, liburutegi, jan gela ta biltokiak ezin obek. Nafarro

osoa Leitzari gauza arrigarri ba- teri bezala begiratzen diote.


Erri au zerbait ba da, Patxi Arrazolari zor dio. Eskertu su be- tiko legoke. Gipuzkoar gizon argi ta trebe au, euskalzaile purruka- tua gengan. Leitzaz egagutu ezke- rotik maitatu zuna benetan.

Orain dela 15 urte ari ziran Leitzan, erriaren etorkizunari be- giratuaz, gora berak jolotzen. La- na biderik eztegon bertan ta gaz- te guztiak ba zijoazten alde. Orre- la, erria indarra gaitzen zijoan. Ordungo alkatea Fermín Lizarra- ga, Nikolas Buldain errotore jau- mengana bere kezka olek eger- tzeri Joan zan. Lantegui berri bati- reri arerra egin bearko zitzaio- lakoen gelditu ziran. Ortarako lu- rrak eskeñi bear, baita argia ta ura. Papeleria bat egiteko asmo- kin aurreratu zan Patxi Arrazo- la. Urangaren papeleratik zeto- ren, barria egitera. Eun langilei artu zituan asieran. Joan dan ur- tean 1970 an il danean, 1.140 lan- guille lanean ari ziran. Nortasun audiko gizon onek ba zituan as- mo ugari, baita aurrera ateratze- ko gogoia. Bere asmoak etziran nolankitok, kementa era lzu- garriz, etzan etxean gelditzeko jaloa. Gizon aurrerakola gengan. Buruan bi gauza sartu zitazkion barrenaraino: lendaibizi lantokiak sortu bear zitula euskaldunen- tzat, gero gazteak ezi egin bear zirala. Asmo olek betetzeko, bi laguntzale azkarrak eta trebek erkitu zituan; Papeleria lantegia zabaltzeko Patxi Nabal ingeniero gaztea ta bear ziran ikastetxeak egiteko Jose Manuel Lasarte apaiza langillea.

Papelerian lana egiteko nelago zituan euskaldunak kanpotarrak baino Berak zionez: «Atsegiñago Zitzaiola euskaldun jator bat er- daldun onena baino». Bere eus- kaldun langillen billa egunero au- tobusak jartzen zituan, Elizondo, Atallo ta Goizuetaraino, gaur oraindik dijoaztenak. Orre la zen- bat bidetako gizeameti ematen dieten ogia. Erria, arro tze kin, tzuu naustu nai. Erri bertan eroso, garbi ta buxun jan dezaten eta alkarrekin egon, OIALDE janto- ki ederra osatu zuan. Langilleen- tzat etxeak egiten saiatu zan. Ibaia garbi ta buxun olek arren ez du zirikilik ustutzen. Ango



LEITZAKO ENPARANTZA



NEKAZARI ESKOLA

ibaletan ez dago usal txarrik, ikus- ten danez euskal gizonak eta gure amalurra maite zituan.

Gazten eta erriaren aurrerapena- ri begiratuaz, eziera idurtitzen zi- tzaion beazteko. Urrutira ikus- ten zuan eta beretzat izan ba- litz bezala jokutzen zan. Asmo olek aurrera ateratzeko berri- z, parrokia, aintamentua ta pape- rera alkatu ziran. Erriaren gizea- me jator batzuek ba zituzten beren ondasunak parrokia em- nak, errian arkitzen ziran bearrak betetzeko. Aintamentuak lurak ere jarri zituan. Danen artean gazten ezikeria begiratuaz Patro- nato AMAZABAL sortu auten. Etzan ain errexa izan. Batzuei erri ontan ikastetxeak etzitzai- zkin ejolik, naiago zuten frontoi bat egiten milioiak ondutu.

Industria bizibideko ikastetxea edo eskola profesionala egin du- te. Bost urte dira iriki dela. 67 mutil daude ikasten. Iru urte igarota ofizialia egiten dute ber- tan. Ilabetero ikasketak 50 peze- ta kostatzen zaie. Jan ta lo egu- nero egiten dutenak berriz 1.500 peze ta ikasten; autetik gela- nak beak dituzte. Baserritarak min zitun Patxi Arrazolak. Bere asmoetik jolatu, egin du Leitzan Nafarroko nekazari eskola baka- rra. 40 mutil dabilta ikasten. Ez dute peze ta bakarrik ere ordaintzen. Orain dela bost urte irkia dago. Mutillak sei ilabete- ko ikasketak egiten dituzte urtero.

Iragarren urtea daramaki au- rrean euskal ikastolak. 84 aur di- joate. Ilbero 50 peze ta ordain- tzen dituzte gurasok. Bost an- dereotik laguntzen diete. Bost oietatik Iru leitzarra ditugu, gai- nera ba daude erriatik kanpora beste bost erakasten. Nafarro- ko euskal erri jator onek ande- riok exportatzen ditu.

Gaur ikastola bete bete dago. Ura bai gauza polita. Gu sartze- rakoan Jose Fermín dantzan la- sai aske zebillen.

Leitzan zeuden monjak Joan dira eta aiek utzitako ikastetxe- zarrak moldatzekoan dabilte an-

txe ikastola zabaltzeko. Ez da berri txarra.

Inguuruetako 400 aur guztiak eskola berri batzuetan biltzen di- tuzte. Eguardiko janaria ta auto- busentzat bost peze ta ordain- tzen dituzte bakoitzak.

Erriko enparantza onduran anto- latu dute tokia nai dutenak le- nengo mallako batxilerratu egite- ko. Gaztetxo morderko bat ba dijoazkie ikastera.

Liburutegi eder bat egin dute ta arratsaldero irkitzen da. Erdal eta euskal liburu ta aldizkariak irakurri di tzaizkete.

Joseba Barriola eraklele jato- rrak asteen bi aldiz egiten du euskal alfabetazioa. Uste du gainera xistua jutzen erakuste- ko asmotan dabilela. Liburutegi- ko zaindaria da bere arreba.

Nekazari gaik aurreratzearren berri kooperatiba bat egin du gure Patxi Arrazolak. Ikusi bear dira angio tresnak, garbitasuna ta beial. Ajelek erakustera pozez ze ramazkin bere adiskideak.

Leitzako gizeameak dute zorio- na. Ori dana Patxi Arrazolaren emaitza da. Eskertu egon dize- ke. Jakina orrelako gizonak ez dira errexak eta danak ezin zuten ontzat artu. Nai ta naietz gauzak aurrera eramatearen erabakia jator bear dira eta neurri batzuek ez dira danen gustokoak.

Patxi Arrazola gi puzkoar gizon jator oneri, lege gizona ta zortzi seme alaben aita gengan, ga- zak nai zituan bezafe etxitzai- zko- lako ateratzen biotza lertuta 1970 ko egurritan 54 urtekin il- len gaigu. Leitzako etorkizuna be- re biza kosta zai. Jator jokaten ez da errexa gizarre ontan.

Orain AMAZABAL patronatua Nafarroko diputazioak artu du bere gain.

Nere iritziz ezaldu ditut Leiz- dauden gazte ederrenetakoak ta ba daude ugari. Baina ark- itzen ditut usune batzuek ezin ditunak bildu. Lenego kezka ur- bainismoari buruz jolotzen zait.

batzuk irakurgarriak direnak: Animalien bizitza, Itasoko gau- za arrigarriak, Amazonetako In- dioak, eta Balearen Arrantzak. Aspaldin argitaratuak ziran- tan badira ioan berri urtean be- rri ere batzuk argitaratzen emanak euskaldunak ezagutu ditzaten: Atsotitzak eta Neurtitzak Ar- naut Oihenarte zenaren (Le- henbizikoz «657 urtean agertua»), eta Eskaldunak, J. M. Hiriba- rren'arena.

Euskal liburuak irakurleak ugaritzen doazela beharretan daude. Gero ta irakurle gehiago izaten bada ere oraindik euske- razko liburuak salmenta haun- diagoa izan behar dute. Salgai dira gure liburu-dendetan.

AXULAR SARIA

«NERI AITEK KONTATUE»

Nere herrien bada toki bat batez ere urriko ilebetan agoz-ago ibiltzen dena izilarren artian, ta da San Blas Uso denboran egunero egiten da goizeko zazpitan uso etxolan sortia, eta hortako beti igaten da guarda o zain- dari bat, hoietako bat bada (nere aitek ez dat erran nai izen nor den) uso pasa den egunian ez omen da beñere etxera gaten usoiak gabe. Egun batez egin omen zuten sor- tia beti bezala eta sartu omen zen Tabernario oyan zo- kora eta belaxe arputu omen zuten bago abar tartian uso bat franko usaindya ta sartu omen zuten sakellan. Orituko atuo omen ziren izilariek zipintzi omen zuten tiroka. Gane- ko etxeletan Elizondoko izilari batek omen zituen Iru edo lau uso hilek; poliki poliki sartzen da gure gizona bere usoiakin etolan eta galdetzen dio:

—Ze badago oro polito?

—Ba konten nai lau bota tut eta nik uste ez dago ain gaizki.

—Ez, ez majo da, ez dire egunero lau uso hiltzen. Be- rria ere eldu zaitzu bertze parastia bat.

Non? —galdetzen dio izilariek.

—Ara hantxe beifiko zulu hartan.

Gure gizona yartzen da bi begiek suten harek erran- ko tokire, ta hartan «Tak» usien du uso ustel hure etxo- latan ta hartzen dio hil berrietatik bat, eta lekutzen da handik.

Iunabarrian gaten omen da izilarie bere etxera ta «ofio» «ofio» erratan omen dio bere andria.

—Arroyoik ezpada ez duzu gaur erran ez dutela yar- sere hartzen.

—Nola battere zerbait karri biar, ia kusi.

Hasten omen da deskartzelatik usiak atratzen. Aja- ka hasten da andrea erranez:

—Banuen beldurre bai etzintzuela denak zuk hil.

—Bayetz nik bota tut denak.

Bai? nik ez dut beñere kusi usoiak airian arreakin.

—Arrekin?

Gure gizona gelditu omen zen ago bete ur otzakim ezin pentsatu nola izen zaiten hure.

Guarda ere allatu omen zen etxera ta diponain maun- kian muturretik lotue omen zakarran truketutako uso hu- re; atra maunetik ta «zanpa» botatzen du sukeldeko ma- yan gafiera ta hasten da ofetakoak kentzen. Katu zar bat tian «trau» hartzen du atzikien ta han daye eskalera- k omen zagon bi begiek dirdiretan usuari beire. Holako ha- betti usua errestan, Gure gizona zango bat oin utsik gibe- lik uyuke:

—Zapi zapi!, katu madarikatue hoi duk in daten lana katu zar horrek, urdia!

Baño harek kasu guti inik otordu ederra inen zuen.

Gure aitek erratan dakun bezala: Horra hemen ikas- gai ederra, alde batetik ez dela beñere fletu behar bertzen solas ederrakin, ta bertze aldetik gaizki dabilenak ez dula beñere ongi akitzen.

Orain osasun ederrakin bizi omen dire nai izilarie eta zaindaria ere. Urte aunitzez bizi daitezila.

MARI KONTEI AGERRE

ALMANDOZ, 13 urte.

KONTU KONTARI

ERROMAKO ZOBIA

Euskalerriko esatera zaharretan aipatua da Erromako zobia. Udaberrian Erromako zubian jotzen omen lehent- ziko aldiz kukuak, Baina, zer da euskaldunen Erromako zobia? Askok uste dute ortzadar, erderazko «Arco Iris» izango zela gure aurrekoen Erromako zobia.

Halakorik gabe, Erroman zubi asko da eta burun- bati gertatua kondatu nahi nuke. Martin Matxo izeneko g- zon bati bere emaztea hil zitzaion eta, bere dolumina an- du orduko beste emakume batez gusatzan hasia kontu- tu zen. Lehenbiziko andreaen aipza izan behar zuen.

Denbora joan eta denbora etorri, biak elkarrekin ap- tzeiko lotsa ere bota ta, ezkontzera abiatu ziren.

Garai hartan era hortako ezkontzak Aita Sanduaren haimena behar izaten omen zuten eta Erromara dijoa gizon- Berak uste baino irurtiago gertatu zitzaion Aita Sandu- ren uria. Behin hasi eta behin ase, inungo emakumeen- gatik ez zuela berriz bide horrenik hartuko esan omen zuen.

Sartu Erroma haundian, eta zubián pasatzean bere herriko emakume batekin topo egin zuen; «sasi guzien gai- netik eta laino guzien azpitik joandako andrea».

—Zer, gizon sorginik bai alda? Baldin ni bizi naizen denboran nuz ikusi naiken esaten baduk ederki paatuko duk...

Bildur zioten aldeko guziak sorgin hari «eta ez zuen gizonak sekula santan ezer esan, Gero sorgina hil garaian jakindu ziren gauzak.

Sagi

LAITXAGA

ALFABETATZE-batzarrea

Arrasaten (II)

Mondragoeko biltura ongi joan zen, gazte multzo ederra bilduz; Talde guztien ordezkariak zeuden, eta salbu bat edo beste, gaineratikoe Euskalazaindik autatu testuak segitzen. Bilkuran, Euskalazaindi- ren ordezkariak, ikasbide horiek aipatu zi- tzen, bai eta Klasetan usatu ditazken tex- toak ere.

Testuak, autore zahar eta berrietatik au- tuta dira; autore zaharrak diralako, euske- ra eta berboa jatorrenik ibiltzen dituzte- nak, akats bat edo beste gora behera. Auto- re modernoen zatiak ere autatu ziran, gail- ren aldetik intresgarri diralako. Autatez hontan, gaila baino gailo, izkuntza garbia kontuan artu da, euskara jatorra irakur- ten ikasteko baitira xoliki. Baina Bildume- tan ezdira denak berdin; berboa ongi daki- ten autoreak autatu behar.

Ez dago zer esanik, ortografia batera- suaren aldera abiatu behar bada ere beti, ortografia zaharra ere onartu beharra dela (modernizatua), autore jator eredu askoen testuak, hartan izkiriak dauzelako; eta ezgara eroak, ditugun autore on guttiak, leiotik botatzeko.

Bizkal-euskalkioko zaharren artean, hauek dira autore autatuak; geienien zatiak, K. Etxenagusia-ren Loretegiaren daudenak,

J. A. MOGEL (Peru Abarka) — Fr. Bartolo Santa Teresa (K. Etxenagusian) — ASIBARRO (Id.) —

Modernoen artean: Txomin AGUIRRE (Kresala) — K. Etxenagusian; KIRIKISO (Id.) — Barandiaran-en Ipuinak (Id.) —

ABELETXE (Z. Argian agertu artikulu bat edo beste) — M. Zarateen «Bizkal idaz- len Loretegi» — X. KINTANA-k Z. Argian izkiriartutako, Zoologaz artikuluoren bat. — Gipuz-euskalkian: zaharren artean: KARDABERAZ (K. Etxenagusian) — J. B. AGUIRRE (Id.) — LARDIZABAL (Id.) — G. ARRUE (Id.) — Mendiburu.

Modernoen artean: Txomin AGIRRE (K. Etxenagusian) — ORRUE (Id.) — «Aramio- tik ere igesi» — BARANDIARAN-en Ipui- nak (Id.) — Azkeneko mairuk — Muska- ko jentilla — Patxi erremetaria — Villa- sante — X. LEITE (Z. Argian) — S. GAR- MENDIA — Luraren Kordairar-tik zati bat — M. Leku'naren GERO-AIZIN solasa — Nafar-lapurtarrez: AXULAR (Gero) (K. Etxenagusian) — Iones Etxeberri (—Lafitte-n Euskaldunen LORETEGIA— liburuan) — LARREKO—(Euskaldun biot- tuna Mexico-n) — MANEZAUNDI—(Ko- kotz arraintzaria (K. Etxenagusian). — Euskalki hontakoak, asierako zailak dirala uste dugu.

Aipatu autore horietatik, ikastaro ba- koitzeko, bakar baten artikulu bat edo bi ikertzea naiko da, denbora batentzat. Ho- rietatik ateratzea ezta komeni, zehazki iker- tual diralako denak.

Arrasateko Bilkuran, aipatu Talde geie- nataka buru diranak agurtu genituen, ikas- bideari buruz, eztabala batzu sortu ziran, baina ongi amaitu zen Biltzarrea. Uste du- gu, ondorio onik izanen duela.

A. Apat Etxebarne